


# **Astigarraga eta inguruetakoko sagardo dolare tradizionalen azterketa**



**Josu Tellabide  
Asier Agirresarobe**

**2010eko apirila**

## AURKEZPENA

2010eko martxoan eta apirilean zehar burututako inbentario honek, Sagardoetxeak Astigarraga eta inguruko herrietan sagardo dolare tradizionalen ezaugarriak eta egoera ezagutzeko nahiari erantzuten dio.

Horretarako eta bere enkarguz, lehen fase modura, Astigarraga eta bere eragin ingurua osatzen duen esparrua aztertu da. Zehatzago izateko, arakatutako eremua honakoa izan da: Astigarragako udalerrri osoa; mugakide dituen Donostiako Amarabehea, Martutene eta Altza auzoetako zati handi bat, Astigarragatik gertueneko alderdia, hain zuzen; Urumearen eskuinaldean kokatutako Hernaniko Ereñozu, Epela, Akarregi eta Martindegi auzoak; eta Errenteriako Zamalbide auzotik Astigarragako mugatik gertueneko alderdia.

Lehendik ezaguna zen informazioa oinarri hartuta, baserriz baserri, etxez etxe aritu gara, garai bateko dolareen bila. Bertakoekin, eta ahal dela adineko jendearekin, baserrietan sagardogintza ohikoa zen garaiak eta ezagutu dituzten dolareez aritu gara solasean. Bati eta besteari ateratako hari muturrari jarraika, aztertutako eremuan, gaur egun oraindik 35 dolare aurkitu ditugu, garai batean izan zirenetatik urrun, baina hasiera bateko usteak baino dezente gehiago. Oraindik sagardoa egiten duten baserrien kopuruari dagokionez, bestelakoa da egoera: Astigarragako hiru dolaretan besterik ez da sagarra jotzen, aztertutako Hernaniko zatian lautan, Errenterian bitan eta batean ere ez Donostiako Amara inguruan. Baina nola bestela Astigarraga eta inguruko sagardo industriaren ondoan?

Aurkitutako dolareetan, beharrezko argazkiak ateratzeaz gain, informatzailearekin hitz egin da, kasu gehinetan jabea bera, dolarearen berri eman diezagun eta gogoan dituen datu guztiak jaso ahal izateko: iraunaldia, ekarri zuteneko garaiko kontuak, duela ez hainbestekoak, etab. Azterketaren barnean dolarearen tipologia, ezaugarriak eta egoera ere jaso dira, baita oraindik mantentzen dituzten sagardogintzako elementu guztien zerrenda ere: upelak, matxaka, onilak... Bildutako informazioarekin, fitxa moduan aurkeztutako datu-basea eraiki da, etorkizun batean, beste herri edo eskualdeko dolareetako datuekin osatzeko. Dolare tradizional guztien fitxak egin dira, bai baserri edo etxeetakoak, bai gaur egungo sagardotegi handietan aurkitutako lehengo dolareenak.

Lan hau jarduera zahar honen inguruan egiteke dauden beste azterketa eta datu bilketa sakonagoentzat ekarpen bat besterik ez da. Izan ere, emeki-emeki badoan belaunaldiak, mendez mende, urtez urte, bizimodua eta usadioari esker iraun duen kultura oso bat darama berarekin, eta tartean sagardogintza tradizionalaren mila kontu, datu eta jakintza.

Amaitzeko, ezin gera gaitetzke, etxe guztietan, dolarea eduki edo ez, jasotako harrera beroa eskertu gabe. Abegitsu hartu gaituzte, dolarea ikusteko eta argazkiak ateratzeko atea den bestean zabaldu, eta gogoan dutena kontatu digute. Bide batez, Sagardoetxeari ere gure esker ona adierazi nahi diogu emandako aukera eta elkarren artean burututako lanarengatik.

# 1.- DOLARE TRADIZIONALAK BASERRI EDO ETXEETAN

<b>ASTIGARRAGA</b>	Tolarea izan zuen	Oraindik badu	Sagardoa egiten dute
<b>SANTIAGOMENDI</b>			
Olabide			
Lagatxaga (Irastortza)		1	
Lagatxaga (Urbistondo)		2	
Irauntza		3	
Artola			
Pikoaga		4	
Illagorriene		5	
Zabale		6	
<b>Goikoetxea</b>		7	
Bortanea		8	
Ermaña		9	
Zimelurrizaga		10	
Aizeleku		11	
Manixene			
<b>Elizondo</b>		12	
Larrabide			
Agiñastegi (Arzelus)		13	
<b>ERREKALDE</b>			
Argindegi		14	
Errekaldezar (Aia)			
<b>ERGOBIA-GURUTZETA</b>			
Nobleza			
Gurutzeta. (Xaldibinia)			
Erreronea			
<b>GALTZAUR</b>			
Portutxo			
Gaztañaga			
Emeterio-enea			
Etxabe			
Usategieta		15	
Taula (Etxeberria)		16	
Taula (Zapaian)		17	
Larraburu			
Bidegain		18	
Telleribea			
Tellerigoia			

<b>HERNANI</b>	Tolarea izan zuen	Oraindik badu	Sagardoa egiten dute
<b>MARTINDEGI</b>			
Añua			
Martindegi (Toloxane)		19	
Txandrene			
<b>AKERREGI</b>			
Ariztegi		20	
Erratzu			
Orkolaga			
<b>EPELE</b>			
Añuaberri		21	
<b>EREÑOTZU</b>			
Akola		22	
Alkatxurain		23	
Txilibita		24	
<b>Latse</b>		25	
Izenederbekoa		26	

<b>DONOSTIA</b>	Tolarea izan zuen	Oraindik badu	Sagardoa egiten dute
<b>AMARA</b>			
Muntogorri		27	
Garratxene			
Erbitegi			
Erbitegi-etxeberri			
Basozabal			
Okondotegi			
Goiatzerribera			
Goiatztxiki			
Balandegi			
Billandegibea			
<b>ALTZA</b>			
Irasmoenegoia			
Amoreder			
Pelegriñene			
Isabeletxe		28	
Antondegi		29	
Aingerubea (Angelubea)			
Elenategi-Berri		30	
Elenategi			
Marijuandegigoia			
Zapirainzar			
<b>LANDARBASO</b>			
Astabizkar		31	
Landarbaso		32	
Larratz			

<b>ERRETERIA</b>	<b>Tolarea izan zuen</b>	<b>Oraindik badu</b>	<b>Sagardoa egiten dute</b>
<b>ZAMALBIDE</b>			
Lubeltzaberri		33	
Aitzondo			
Gure Nahia. Txabola		34	
Bordazar		35	
Arkiri			
Susperregi			
Otsazuloeta			

## 2.- DOLARE TRADIZIONALAK GAUR EGUNGO SAGARDOTEGIETAN

<b>ASTIGARRAGA</b>	<b>Tolare tradizionala mantentzen du</b>	<b>Tolare horretan sagardoa egiten dute</b>
<b>Santiagomendi</b>		
Larrarte	*	
Sarasola	*	
Oiarbide		
<b>Galtzaur</b>		
Buenaventura	*	
Borda		
<b>HERNANI</b>		
<b>Akerregi</b>		
Rufino	*	
<b>Ereñotzu</b>		
Larregain		
<b>DONOSTIA</b>		
<b>Altza</b>		
<b>Gartziategi</b>		
<b>Amara</b>		
<b>Barkaiztegi</b>		
<b>ERRETERIA</b>		
<b>Zamalbide</b>		
Egiluze	**	

\* Orioko Ondozabal enpresan egindako prentsa industrialia.

\*\* Eraikina, garliak, matxaka...

Oharrak:

- 1.- Altza, Amara, Zamalbide eta Ereñozu auzoak ez dira bere osotasunean aztertu, Astigarragatik gertueneko alderdiak bakarrik.

## Sagardo dolareen zerrenda

Zenbakia eta izena	Auzoa	Udalerrria
01 LAGATXAGA (Irastortza)	Santiagomendi.	Astigarraga.
02 LAGATXAGA (Urbistondo)	Santiagomendi.	Astigarraga.
03 IRAUNTZA	Santiagomendi.	Astigarraga.
04 PIKOAGA	Santiagomendi.	Astigarraga.
05 ILLAGORRIENE	Santiagomendi.	Astigarraga.
06 ZABALEA	Santiagomendi.	Astigarraga.
07 GOIKOETXEA	Santiagomendi.	Astigarraga.
08 BORTANEA	Santiagomendi.	Astigarraga.
09 ERMAÑA	Santiagomendi.	Astigarraga.
10 ZIMELURRITZAGA	Santiagomendi.	Astigarraga.
11 AIZELEKU	Santiagomendi.	Astigarraga.
12 ELIZONDO	Santiagomendi.	Astigarraga.
13 AGIÑASTEGI (Arzelus)	Santiagomendi.	Astigarraga.
14 ARGINDEGI	Errekalde.	Astigarraga.
15 USATEGIETA	Galtzaur.	Astigarraga.
16 TAULA (Etxeberria)	Galtzaur.	Astigarraga.
17 TAULA (Zapiain)	Galtzaur.	Astigarraga.
18 BIDEGAIN	Galtzaur.	Astigarraga.
19 MARTINDEGI	Martindegi.	Hernani.
20 ARIZTEGI	Akerregi.	Hernani.
21 AÑUABERRI	Epele.	Hernani.
22 AKOLA	Ereñotzu.	Hernani.
23 ALKATXURAIN	Ereñotzu.	Hernani.
24 TXILIBITA	Ereñotzu.	Hernani.
25 LATSE	Ereñotzu.	Hernani.
26 IZENEDERBEKOA	Ereñotzu.	Hernani.
27 MUNTOGORRI	Amara.	Donostia.
28 ISABELETXE	Altza.	Donostia.
29 ANTONDEGI	Martutene (Altza).	Donostia.
30 ELENATEGI-BERRI	Martutene (Altza).	Donostia.
31 ASTABIZKAR	Landarbaso.	Donostia.
32 LANDARBASO	Landarbaso.	Donostia.
33 LUBELTZABERRI	Zamalbide.	Errenteria.
34 GURE NAHIA (TXABOLA)	Zamalbide.	Errenteria.

## Sagardo dolareen zerrenda

<b>Zenbakia eta izena</b>	<b>Auzoa</b>	<b>Udalerrria</b>
35 BORDAZAR	Zamalbide.	Errenteria.
36 LARREGAIN	Erenotzu.	Hernani.
37 GARTZIATEGI	Martutene (Altza).	Donostia.
38 BARKAIZTEGI	Amara.	Donostia.

---

**Dolareak guztira: 38**

**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Lakatsa, Lagatxaga.

**Auzoa, udalerria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren hegoaldeko erdian bizi dira Irastortza familiakoak. Behe solairuan, hegomendebaldean dute tolaera, ukuluaren ondoko sotoan.

**Jabea:** Antonio Irastortza.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** 1950era arte egon zen martxan.

**Zenbait datu:** Azken urteetan etxerako bakarrik egiten zuten sagardoa, baina lehenago kanporako ere, zer edo zer. Tolare honen aurretik beste bat izan zuten, zaharragoa eta pisoiekin eskuz jotzen zuten sagarra.

**Egungo erabilera:** Baratzerako zurkaitz edo makilen biltegia.

**Kontserbazio egoera:** Hala moduzkoa.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz bakarra du. Burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da gora eta behera burua, estutzeko karraka mekanismoa eta loturik duen egurrezko urkaz osatua.

**Dolarearen osagarriak:**

Sagardo botilen biltegia.

**Argazkiak:** 01.01, 01.02.

---

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, Astigarraga.

**OHARRAK**

Motordun matxaka erabili zuten azken urteetan.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Antonio Irastortza.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 15a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Lagatxaga, Lakatsa.

**Auzoa, udalerria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren iparraldeko erdian dute Urbistondo familiakoek. Behe solairuan dago toleara, ipar-mendebaldean.

**Jabea:** Isidro Urbistondo.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 20 bat urte arte.

**Zenbait datu:** 16.000 litro inguru (4.000 litroko lau barrika) egiten zituzten. Etxeko kontsumorako egiteaz gain, kanpora ere saltzen zuten. Hori dela eta arazo bat baino gehiago izan zuten. Azken urteetan tolear zaharraren ordeztasun prentsa hidraulikoa muntatu zuten.

**Egungo erabilera:** Trasteleku bezala erabiltzen dute aska.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz bakarra du. Bi zilindro hidraulikok eragiten dute indarra. Zurezko urkaren ordeztasun altzairuzko perfil zatia du.

**Dolarearen osagarriak:**

- Matxaka eta sagarrak matxakara igotzeko uhal garraiatzailea.
- Bukoia.
- 50 litroko barrikotea.

**Argazkiak:** 02.01, 02.02.

---

**GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, matxaka, Astigarraga, upela.

**OHARRAK**

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Isidro Urbistondo.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 15a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Irauntza, Iholtza.

**Auzoa, udalerrria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren behe solairuan, ipar-mendebaldeko bazterrean. Lehen solairura igotzeko eskaileren ondoan.

**Jabea:** Ollo familia.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 20 bat urte arte, etxerako bakarrik.

**Zenbait datu:**

**Egungo erabilera:** Ez du erabilerarik. Trastelekua.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutik jarritako ardatz hariztatuak eta bertan gora eta behera egiten duen buruak osatzen dute. Bolante baten bidez eskuz eragindako torloju amaigabea biratuz mugitzen da koroa-horzduna eta azpialdetik zanpaketarako loturik duen zurezko urka.

**Dolarearen osagarriak:**

- Bi inertzia-bolantedun matxaka, goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko hodiarekin.
- Sagardo botilak garraiatzeko egurrezko kaxak.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.

**Argazkiak:** 03.01, 03.02, 03.03, 03.04.

---

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga.

**OHARRAK**

- Sagarrak saltzean lortzen duten diruarekin sagardo botilak erosten dituzte gaur egun.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Ollo familia.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 15a

---



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Pikoaga.

**Auzoa, udalerrria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren ipar-ekialdeko eranskin ireki batean. Upelak etxe barnean dituzte.

**Jabea:** Anjel Zapiain.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Urtero egiten dute sagardoa, ebxerako. 2009an 600 bat litro.

**Zenbait datu:** Duela 20 bat urte berritu zuten tolarea eta gaur egun dagoena muntatu.

**Egungo erabilera:** Sagardogintza.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz bakarretik behera trakzio mekanikoz eraginda jaisten den plataforma handi batek zanpatzen du lehenago matxakan jotako sagarra. Hainbat altzairuzko perfil eta oholez osatutako plataforma gainean doan motorrak uhal eta polea baten bidez mugitzen du ardatz hariztatu gora eta behera egiteko mekanismoa, diametro ezberdineko koroa-horzdunak eta torloju amaigabe batek osatua, eta plataforma bera. Neurri nabarmeneko hormigoizko askaren bazterreko zulotik behera etxe barneko upelategira isurtzen da zukua.

**Dolarearen osagarriak:**

- Trakzio mekanikodun matxaka goiko terrazatik matxakaren tolbara sagarrak zuzentzeko hodiarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Sagar-biltzerako kizki eta zarea.
- Patsa mozteko pala, pika eta bestelako tresnak.
- Barrika batzuk.

**Argazkiak:** 04.01, 04.02.

---

**GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, matxaka, Astigarraga, sagardoa egin, upela.

**OHARRAK**

- Tolare zaharra Bortaneara eraman zuten.
- Ardatz eragile, polea eta uhalen bidez motor bakar batek mugitzen zituen lehen prentsa eta matxaka. Oraindik aztarnak ikus daitezke.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Anjel Zapiain.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 9a

---



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Illagorriene, Illegorriene, (Illorrene).

**Auzoa, udalerria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren atzealdean, behe solairuko iparraldeko bazterrean dago toleara. Gaur egun etxeke egongelaren parte da toleara.

**Jabea:** Momentu honetan maizterrak bizi dira.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Aspaldi ez da egin.

**Zenbait datu:** Maizter ugari pasa da etxe horretatik, baina maizterrek ez dute sekula sagardorik egin.

**Eguno erabilera:** Sutarako egurtegi moduan.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutitutako ardatz hariztatua du. Burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da ardatzean gora eta behera egiten duen burua, estutzeko karraka mekanismoa eta loturik duen zurezko urkaz osatua.

**Dolarearen osagarriak:**

- Inertzia-bolantedun matxaka.

**Argazkiak:** 05.01, 05.02, 05.03.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga.

**OHARRAK****GALDETEGIA**

**Informatzailea:**

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 24a



## 06 ZABALEA

## Sagardo dolareen inbentarioa

### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Zabalea.

**Auzoa, udalerrria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren behe solairuan, hego-mendebaldeko bazterrean, ukuilua zenaren ondoan.

**Jabea:** Jose Luis Zubillaga.

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XIX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 15-20 urte arte.

**Zenbait datu:** Auzoko tolare nagusia zen, Palanka, Plazaetxe, Etxeundi eta auzoko beste etxeetakoak bertara joaten ziren sagardoa egitera.

**Egungo erabilera:** Trasteleku, biltegia.

**Kontserbazio egoera:** Hala moduzkoa.

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

#### **Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutitutako ardatza du, goiko zatian hariztatua. Burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da ardatzean gora eta behera, urka eta estutzeko mekanismoaz osatutako burua. Zurezko aska du, kantalerekin, eta solairu berean baino lurzorua baino altuago dauden soliba edo azpi sunbilek eusten dute.

#### **Dolarearen osagarriak:**

- Inertzia-bolantedun matxaka, goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko hodiarekin. Hasieran eskuzko trakzioa bazuen, uhal eta polea bidez, motorrak mugitzen zuen azken urteetan.
- Sagardo botilak garraiatzeko egurrezko kaxak.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.

**Argazkiak:** 06.01, 06.02, 06.03.

### **GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, matxaka, Astigarraga.

### **OHARRAK**

Sagastiak mantentzen ditu eta bildutako sagarrak sagardotegi batera eramaten ditu.

### **GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Jose Luis Zubillaga.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 15a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Goikoetxea.

**Auzoa, udalerrria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren lehen solairuan, eraikinaren ipar-mendebaldeko nbazterrean. Upelategia eta tina behe solairuan zituen.

**Jabea:** Pako Elizondo.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XIX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Badira 50 bat urte ez dutela sagardorik egin.

**Zenbait datu:** Etxerako egiten zuten batik bat baina soberakina saldu egiten zituzten. Azken urteetan behintzat ez zuten urtero egiten, bi urtero-edo, baizik.

**Egungo erabilera:** Bere horretan dago, hutsik baina txukun.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutitutako burdinazko ardatz bakarra du, goiko erdian hariztatua. Burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da ardatzean zehar burua, zintzilik duen zurezko urka barne. Tamaina handikoa zurezko aska soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Behe solairuaren sabaian azpi sunbilak ikus daitezke. Baita ardatza eusten duen urkaren antzeko egurra eta torlojua ere.

**Dolarearen osagarriak:**

- Bi inertzia-bolante handi dituen matxaka, eskuz eragiten dena.
- Barrika bat.
- Hainbat zare eta kizki.
- Alboko gelan pats-zuloa, junteatutako harlangaitzez mugatutako lau zulo errektangeluarrez osatua.

**Argazkiak:** 07.01, 07.02, 07.03.

---

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, matxaka, Astigarraga.

**OHARRAK**


Erakusketa moduan du, bai tolarea, bai etxea bera.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Pako Elizondo.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 15a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Bortanea.

**Auzoa, udalerrria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren behe solairuan, ukuluaren bazter batean, iparraldeko hormen kontra.

**Jabea:**

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendearen hasierakoa.

**Iraunaldia:** Aspaldian ez dute sagardorik egin.

**Zenbait datu:** Azken urteetan estualdietarako katu hidraulikoak erabili zituzten.

**Egungo erabilera:** Bere horretan mantentzen dute tolarea.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian bertikalean porlanean hartutako ardatz bakarrak eta goiko muturrean lau buloiz banatutako bi bolante horizontalek osatutako buruak osatzen dute prentsa. Bolanteen erdian dagoen tako baten bidez lotzen zaio ardatz hariztatuari. Beheko bolanteak eusten du azpiko zurezko urka, berarekin batera ardatzean gora eta behera egin dezan. Haga bidez estutzen da.

**Dolarearen osagarriak:**

Inertzia-bolantedun matxaka goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko egurrezko hodiarekin.

**Argazkiak:** 08.01, 08.02.

---

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga.

**OHARRAK**

Trakzio mekanikoa du matxakak, baina motorrik ez dute gordetzen.

**GALDETEGIA****Informatzailea:**

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 9a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Ermaña.

**Auzoa, udalerrria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserri zaharraren behe solairuan, eraikinaren eskuinaldean (hego-ekialdean). Tina eta upelak sotoan dituzte.

**Jabea:** Joxean Zubillaga.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Urtero egiten dute sagardoa.

**Zenbait datu:**

**Egungo erabilera:** Sagardogintza.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Askaren erdian porlanean zutik hartutako ardatz bakarra du. Trakzio mekaniko bidez mugitzen da gora eta behera, ardatz hariztatu muntatutako burua. Motorra estutzeko mekanismoarekin batera mugitzen da, eta zuzenean eragiten du horzdun koroan, uhalen beharrik gabe. Zurezko urkaren ordeztuzko altzairuzko perfil zatia du. Hormigoizko aska du.

**Dolarearen osagarriak:**

- Trakzio mekanikodun matxaka.
- Matxakaren tolbara sagarrak igotzeko uhal garraiatzailea.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Sagar-biltzerako eta patsa mozteko tresneria.
- Altzairu herdoilgaitzezko lau upel.
- Altzairuzko tina.
- Botilaratzeko makina zaharra.

**Argazkiak:** 09.01, 09.02, 09.03.

**GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, matxaka, Astigarraga, sagardoa egin, upela.

**OHARRAK**

Baserrian bertan dagoen taberna-jatetxean edan daiteke etxean egindako sagardoa.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Josune Zubillaga.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 9a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Zimelurritzaga.

**Auzoa, udalerria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren ezkerreko (mendebaldeko) eranskinean. Lehen solairuan du tolarea eta behe solairuan zituen upelak.

**Jabea:** Inazio Zubillaga.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:**

**Iraunaldia:** Urte asko dira sagardorik egiten ez dutela.

**Zenbait datu:**

**Eguno erabilera:** Belarrez beteta dago.

**Kontserbazio egoera:** Hala moduzkoa.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Burdinazko ardatz bakarrekoa da. Zurezko aska du.

**Dolarearen osagarriak:**

**Argazkiak:** 10.01, 10.02, 10.03.

---

**GAKO-HITZAK**

Astigarraga, zurezko aska.

**OHARRAK**


Lastoz beteta dagoenez ezin da tolarea bera ikusi. Behe solairuan, ordea, aska eusten duten zurezko soliba edo azpi sunbilak ikus daitezke.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Inazio Zubillaga.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 16a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Aizeleku, Berruetazar.

**Auzoa, udalerrria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren mendebaldeko eranskinean. Lehen solairuan du toleara eta behean, sotoan, upelategia. Dolarea da hain zuzen Aizelekuko eraikinik zaharrena, gainerkoa berritu egin baitzuten.

**Jabea:** Alberto Ruiz.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 6 urte utzi zioten sagardoa egiteari, horretan aritzen zen baserriko aitona hil zenean.

**Zenbait datu:** Batez ere etxerako egiten zuten sagardoa. Egiteari utzi baino urtebete lehen berritu zituzten zurezko aska eusten duten soliba edo azpi sunbilak, aurrekoak egoera txarrean baitzeuden.

**Egungo erabilera:** Trastelekua.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutitutako ardatza du, goiko erdia pasatxo harizatua. Zati horretan muntatua du burua, estutzeko karraka mekanismoa eta egurrezko urkaz osatua. Burdinazko palanka bidez eskuz eragin behar da buruak ardatzean gora eta behera egin dezan. Zurezko aska du, kantalerekin, eta soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Sotoan ardatza azpialdetik eusten duen urkaren pareko egurra eta torlojua ikus daitezke. Lurzoru naturala du sotoak.

**Dolarearen osagarriak:**

- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Barrika bat
- Sagar bilketarako zare eta kizkiak.

**Argazkiak:** 11.01, 11.02, 11.03.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, Astigarraga.

**OHARRAK**

Sagastiak mantentzen dituzte, baina orain sagarrak gertuko sagardotegi batera saltzen dituzte.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Alberto Ruiz.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 24a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Elizondo.

**Auzoa, udalerria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren iparraldeko eranskinean.

**Jabea:** Orbegozo anai-arrebak.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Badira 30 bat urte ez dutela sagardorik egiten.

**Zenbait datu:** Petritegitik ekarri omen zuten tolarea.

**Egungo erabilera:** Ez du erabilerarik.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutitutako ardatza du, goiko erdia hariztatua duena. Zati horretan muntatua du burua, estutzeko mekanismoa eta urkaz osatua. Burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da ardatzean gora eta behera burua, eta urka zurezkoa beharrez, altzairuzko perfil puska da. Lurzorua baino altuago kokatuta dago hormigoizko aska, eta bertara igotzeko egurrezko eskailera du, eskuinaldean.

**Dolarearen osagarriak:**

- Trakzio mekanikodun matxaka goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko hodiarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Barririkak, bukoiak, eta edukiera handiko upelak.
- Sagardo botilak garraiatzeko burdinazko hari lodiz egindako kaxak.
- Kortxoa jartzeko makina.

**Argazkiak:** 12.01, 12.02, 12.03, 12.04.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga, upelak.

**OHARRAK**

- Etxea sute batek erre zuen eta 1992ko otsailan auzolanean berreraiki. Tolarea izan zen sutetik salbatu zen bakarretakoa.
- Dolarea dagoen eranskin berean ferratokia dago.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Joxe Mari Orbegozo.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 16a



### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Agiñastegi.

**Auzoa, udalerria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren aturreko txabolaren eranskinean.

**Jabea:** Zapiain-Arzelus familia.

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Aurten 4 urte bete dira sagarra jo ez dutela.

**Zenbait datu:** Duela 35 bat urte ekarri zuten tolarea Urnietatik, eta orduan hasi omen ziren sagardoa egiten. Donostiako ingurabide berriak, bere onenean zegoenean egundoko sagastia bota zietelako, utzi zioten, besteak beste, sagardoa egiteari. Azkeneko urteetan, prentsa oso mantsoa zela eta, katu hidraulikoak erabili zituzten.

**Egungo erabilera:** Bere horretan dago. Trastelekua.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

#### **Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutitutako ardatza du, goiko muturra hariztatua duena. Zati horretan muntatua, eskuz eraginda ardatzean gora eta behera mugitzen den burua du, estutzeko karraka mekanismoa eta urkaz osatua. Kasu honetan zurezko urkaren ordeztuzko perfil bikoitza darama. Hormigoizko askak kantamera edo alboetako hormarik ez duenez, bertikalean jarritako oholtzoz osatutako sarea jartzen zaio inguruan prentsatu behar denean. Askaren bazter bateko zuloatik behera, tolarepeko satora isurtzen da muztioa, eta plastikozko tutu bidez, balde batera bideratu eta upeletara eraman.

#### **Dolarearen osagarriak:**

- Oartzungo Balerio baseritik ekarritako matxaka motorduna. Sorbalda gainetik sagarrez betetako zakuak irauli eta matxakara bideratzeko zurezko hodia eransten zaio tolbari. Motorra, ordea, informatzaileak berak egindako beste matxaka zaharrago batena da. Prentsaren lehenengo urteetan, haiz zuzen ere, akaziazko hortzak dituen matxaka hori erabili zuten.

- Sare barnean jarri behar diren egur eta oholak.

- Altzairu herdoilgaitzeko upela, baserrian.

**Argazkiak:** 13.01, 13.02, 13.03.

### **GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga, upela.

### **OHARRAK**

### **GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Isidro Zapiain, jabeetako baten senarra.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 16a



## 14 ARGINDEGI

## Sagardo dolareen inbentarioa

### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Argindegizar.

**Auzoa, udalerria:** Errekalde., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren aturreko eranskinean.

**Jabea:** Javier Arrizabalaga.

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 5 bat urte arte sagardoa egiten zuten.

**Zenbait datu:** Lehen, etxe barruan zuten toleara.

**Egungo erabilera:** Sagardo botilen biltegia.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

#### **Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutik hartutako ardatz bakarra du. Estutzeko karraka mekanismoa burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da ardatz harizatuan gora eta behera. Zurezko urkaren ordeztuzko altzairuzko perfil zatia du.

#### **Dolarearen osagarriak:**

- Motordun matxaka goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko zurezko hodiarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Bukoia
- Kortxoa jartzeko makina.

**Argazkiak:** 14.01, 14.02.

### **GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga.

### **OHARRAK**

### **GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Javier Arrizabalaga.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 16a



## **15 USATEGIETA**

## **Sagardo dolareen inbentarioa**

### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Usategieta.

**Auzoa, udalerrria:** Galtzaur., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren lehen solairuan toleara eta behe solairuan upelategia.

**Jabea:** Uriarte - Altuna.

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 30 bat urte arte sagardoa bertan egin dute.

**Zenbait datu:**

**Egungo erabilera:** Trastelekua, biltegia.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

#### **Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutik hartutako ardatza du, goiko erdia hariztatua duela. Zati horretan muntatua du ardatzean gora eta behera mugitzen den burua, palanka bidez eskuz eraginda estutzen den mekanismoaz eta zurezko urkaren ordeztuzko altzairuzko perfil zatiaz osatua. Behe solairuaren sabaian aska eusten duen hormigoizko gurutzeta ikus daiteke, erdian ardatzaren torlojua duela.

#### **Dolarearen osagarriak:**

- Motordun matxaka goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko zurezko hodiarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Sagardo botilak garraiatzeko burdinazko hari lodiz egindako kaxak.
- Sagar biltzerako zare eta kizkiak.

**Argazkiak:** 15.01, 15.02, 15.03.

### **GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga.

### **OHARRAK**

Gaur egun bertan bizi ez arren, informatzailea Usategietan maizterra da, aspalditik.

### **GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Joxe Mari Merkader.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 16a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Taula, Tabla.

**Auzoa, udalerrria:** Galtzaur., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserri barnean, lehen solairuan toleara eta behe solairuan upelategia.

**Jabea:** Elena Etxeberria.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 20 bat urte egin zuten azkenezko sagardoa.

**Zenbait datu:** Azken urteetan patsa estutzeko orduan katu hidraulikoak erabili zituzten.

**Egungo erabilera:** Bere horretan mantentzen dute toleara.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz du, goiko erdia hariztatua duela. Zati horretan muntatua du ardatzean gora eta behera mugitzen den burua, palanka bidez eskuz eraginda estutzen den mekanismoaz eta zurezko urkaz osatua. Tamaina handiko zurezko aska soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Behe solairutik ikus daitezke azpi sunbila horiek. Baita ardatza azpitik eusten duen altzairuzko perfilaz indartutako egurra eta torlojua ere.

**Dolarearen osagarriak:**

- Motordun matxaka.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Jotako sagarra maneatzeko tresneria.
- Sagar biltzerako zare eta kizkiak.

**Argazkiak:** 16.01, 16.02, 16.03.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, matxaka, Astigarraga.

**OHARRAK**

Bisita eguna eta datu basea osatu bitartean, obrak egin behar dituztela eta, behe solairuko tina, upela eta ardatzaren torlojua askatu eta desmuntatu dituzte ebxetik kanpora ateratzeko.

**GALDETEGIA**

<b>Informatzailea:</b>	Elena Etxeberria.
<b>Datu bilketaren egilea:</b>	A.Agirresarobe, J.Tellabide.
<b>Datu bilketa data:</b>	2010eko martxoaren 16a



## 17 TAULA (Zapiain)

## Sagardo dolareen inbentarioa

### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Taula, Tabla, Taulaberri.

**Auzoa, udalerria:** Galtzaur., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren eskuineko (hego-ekialdeko) eranskinean. Lehen solairuan toleara eta behean upelategia.

**Jabea:** Bittori Zapiain.

---

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Badira 40 bat urte azkenekoz sagardoa bertan egin zutela.

**Zenbait datu:** Errenteriako Mendiola eta Donostiako Joxemari tabernatik etortzen ziren Taulara etxeko sagarrarekin egindako sagardo upelen bila, familiakoak baitziren.

**Egungo erabilera:** Erabat utzia dago.

**Kontserbazio egoera:** Txarra.

---

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

#### **Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz du, goiko erdia harizatua duela. Zati horretan muntatua du ardatzean gora eta behera mugitzen den burua, eskuz eraginda estutzen den mekanismoaz eta zurezko urkaz osatua. Tamaina handiko zurezko aska soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Behe solairutik ikus daitezke azpi sunbila horiek. Baita ardatza azpitik eusten duen altzairuzko perfilaz indartutako egurra eta torlojuare ere.

#### **Dolarearen osagarriak:**

- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Upelak, hondatuta.
- Harri eta mortairuz egindako patsazulo handi bat du, silo zilindriko baten modukoa.

**Argazkiak:** 17.01, 17.02, 17.03.

---

### **GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, matxaka, Astigarraga.

### **OHARRAK**

- Oso hondatuta dago. Eraikinaren teilatua behera etorri da. Patsazuloa egoera onean du.
- 9.000 litroko upela ere bazuten baina Zapiain sagardotegiko Rosariori saldu zioten.

### **GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Bittori Zapiain.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko apirilaren 19a



## **18 BIDEGAIN**

## **Sagardo dolareen inbentarioa**

### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Bidegain.

**Auzoa, udalerrria:** Galtzaur., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Bi bizitzetako etxean, ezkerrekoaren behe solairuan, garajejan, sakoneko gelan.

**Jabea:** Isidro Zapiain.

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XXI. mendekoa.

**Iraunaldia:** Urtero egiten du sagardoa.

**Zenbait datu:**

**Egungo erabilera:** Sagardogintza.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

#### **Dolare-prentsa:**

Eskuzko prentsa txiki eramangarri bat zen hasieran, erdian burdinazko ardatza, burua eta inguruan sarea zuena. Oinarriko zurezko plataforma poliesterez estali, pitzatu eta zabaldu egiten baitzen, eta ardatza eta buruaren ordez, burdinazko zubia ezarri zion, katu hidrauliko bidez eragiteko.

#### **Dolarearen osagarriak:**

- Sare barneko egur eta oholak.
- Asturiastik (Espainia) ekarritako matxaka.
- 550 litroko altzairu herdoilgaitzezko upela.
- 50 litroko garagardo bost barrika eta 60 litroko beste bat.
- Sagardo botilak eta botilak lehertzeko euskarria.

**Argazkiak:** 18.01, 18.02.

### **GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, matxaka, Astigarraga, sagardoa egin, upela.

### **OHARRAK**

- Bidegainen sagardoa egiteaz gain, Agiñastegiko tolarean ere egiten zuen, lehen.
- Donostiako ingurabideko lanak zirela eta, Bidegain etxea lekuz aldatu zuten duela 3 urte, eta noski, baita tolarea eta osagarri guztiak ere.

### **GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Isidro Zapiain.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko apirilaren 28a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Martindegia, Toloxania.

**Auzoa, udalerria:** Martindegia, Hernani.

**Dolarearen kokapena:** Etxe berriaren ondoan, ekialdera.

**Jabea:** Joxe Tolosa.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 6 bat urte egiten zuen sagardoa.

**Zenbait datu:** Getariako kaletik ekarri zuen duela 50 bat urte.

**Egungo erabilera:** Etxearen kanpoaldean dago erakusketa moduan, lau zutabek eusten duten bi isurkiko estalki baten azpian babestua. Martxan jartzeko prest dago, eta egun batean berriro sagardoa egiteko asmoa dute.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz hariztatuan gora eta behera dabilen mekanismo motordunak osatzen du prentsa. Altzairuzko perfil bikoitzaren gainean dagoen motorrak hainbat polea, uhal, koroa-horzdunak eta torloju amaigabeen bidez mugitzen du estutzeko mekanismo guztia. Azulejoz dago estalia hoormigoizko aska.

**Dolarearen osagarriak:**

**Argazkiak:** 19.01, 19.02.

**GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, Hernani.

**OHARRAK**

Tolareak matxaka ere baldin bazuen, ez dago ikusgai.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Joxe Tolosa.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 15a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Ariztegi, Aristegi.

**Auzoa, udalerrria:** Akerregi., Hernani.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren eskuinaldeko (iparraldeko) garaje-eranskinean.

**Jabea:** Joxe Mari Zelaia.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Urtero egiten dute sagardoa.

**Zenbait datu:** 2.000 bat litro sagardo egiten dute, urtero.

**Egungo erabilera:** Sagardogintza, trastelekua.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Askaren erdian hartutako burdinazko ardatz hariztatua du. Burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da ardatzean gora eta behera burua. Zurezko urkaren ordeztuzko altzairuzko perfilak ditu. Lurzorua baino altuago dago hormigoizko aska, muztioa grabitatez behera isuri dadin.

**Dolarearen osagarriak:**

- Motordun matxaka. Hori ere lurzorua baino altuago kokatuta, jotako sagarra zuzenean askara eror dadin.
- Txorrotak, giltzak eta patsolak.
- Sagar bilketarako tresnak eta hainbat otar.

**Argazkiak:** 20.01, 20.02.

---

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Hernani, sagardoa egin.

**OHARRAK****GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Joxe Mari Zelaia.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 16a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Añuaberri.

**Auzoa, udalerrria:** Epele., Hernani.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren ezkerreko (ekialdeko) eranskinean, terrazapean.

**Jabea:** Patxi Larrarte Leonet.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Urtero egiten dute sagardoa, etxerako.

**Zenbait datu:** Gaur egungo tolarea Aginagatik ekarri zuten duela 11 urte. Eskuzkoa zuten, lehen.

**Egungo erabilera:** Sagardogintza.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz bakarretik behera trakzio mekanikoz eraginda jaisten den plataforma handi batek zanpatzen du lehenago matxakan jotako sagarra. Hainbat altzairuzko perfil eta oholez osatutako plataforma gainean doan motorrak uhal eta polea baten bidez mugitzen du ardatz hariztatuan gora eta behera egiteko mekanismoa, diametro ezberdineko koroa-horzdunetz osatua, eta plataforma bera. Neurri nabarmeneko hormigoizko askaren bazterreko zulotik behera tina-zulora isurtzen da zukua, ondoren ponpa bidez barriketara leku aldatzeko.

**Dolarearen osagarriak:**

- Trakzio mekanikodun matxaka, tolarearen kanpoaldetik sagarrak bideratzeko zurezko hodiarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Sagar-biltzerako kizki eta zareak.
- Altzairu herdoilgaitzezko upela.

**Argazkiak:** 21.01, 21.02.

---

**GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, matxaka, Hernani, sagardoa egin, upela.

**OHARRAK****GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Patxi Larrarte Leonet.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 15a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Akola.

**Auzoa, udalerria:** Ereñotzu., Hernani.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren eskuineko (iparraldeko) eranskina da sagardo tolarea. Duela 85 urte egungo jabearen aitona horretarako espresuki eraiki zuen.

**Jabea:** Joxe Susperregi.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendearen hasierakoa.

**Iraunaldia:** Duela 18 bat urte arte.

**Zenbait datu:**

**Eguno erabilera:** Ixituretako alanbre-hesiaren biltegia.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Porlanezko askaren erdian zutik hartutako burdinazko ardatza du, goiko muturrean hariztatua. Zati horretan muntatua du estutzeko karraka mekanismoa, eta horretatik kate bidez zintzilik zurezko urka. Askaren bazterreko zulotik behera etxe barneko upelategira isurtzen da muztioa.

**Dolarearen osagarriak:**

- Txorrotak, giltzak eta patsolak.

**Argazkiak:** 22.01, 22.02.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, Hernani.

**OHARRAK****GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Joxe Susperregi.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 23a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Alkatxurain, Alkatxuin.

**Auzoa, udalerrria:** Ereñotzu., Hernani.

**Dolarearen kokapena:** Ebxetik kanpoko eranskina da tolarea.

**Jabea:** Joxe Mari Artola Santakruz.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Urtero egiten dute sagardoa.

**Zenbait datu:** Duela 20 bat urte ekarri zuten tolarea. Ebxerako egiten dute sagardoa, hiru barrika betetzeko adina, 1000 litro inguru.

**Egungo erabilera:** Sagardogintza, sagardo botila pilatzeko lekua.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Porlanezko askaren erdian zutik jarritako ardatza du. Ardatzaren goiko erdi hariztatuak estutzeko mekanismo xumea du, burdinazko palanka bidez estutzen dena. Patsolak zanpatzen dituen eta urkaren lana egiten duen altzairuzko perfila du zintzilik, kate bidez.

**Dolarearen osagarriak:**

- Motordun matxaka txiki bat. Altura jakin batean dago kokatuta, jotako sagarra zuzenean askara eror dadin.
- Txorrotak, giltzak eta patsolak.
- Hiru barrika eta sagardo botilak.

**Argazkiak:** 23.01, 23.02.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Hernani, sagardoa egin, upela.

**OHARRAK**


Lau bizitzak osatzen zuten Alkatxurain jatorrian. Horietako batek bakarrik mantentzen du tolarea, eta beste batek berriki obra egiterakoan kendu du. Oraindik han ikus daiteke burdinazko ardatza, lurrean.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Joxe Mari Artola Santakruz.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 23a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Txilibita, Ereñotzu.

**Auzoa, udalerrria:** Ereñotzu., Hernani.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren barnean behe solairuan dago toleara, ipar-mendebaldeko izkinan.

**Jabea:** Inazia Oiarbide.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 15 bat urte arte.

**Zenbait datu:** Tolare zaharra lehen solairuan zegoen.

**Egungo erabilera:** Sagardo botilak pilatzeko lekua.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Porlanezko askaren erdian zutik hartutako ardatza du. Ardatzaren goiko erdi hariztatuak estutzeko mekanismoa du, eta hari lotuta beheko aldetik patsolak zanpatzen dituen zurezko urka. Zanpaketan ateratako muztioa aldameneko tina-zulora isurtzen da eta hortik upeletara lekualdatzen dute.

**Dolarearen osagarriak:**

- Txorrotak, giltzak eta patsolak.
- Altzairu herdoilgaitzezko bi upel.
- Pats-zuloa.

**Argazkiak:** 24.01, 24.02.

---

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, Hernani.

**OHARRAK**

- Hezetasun arazoak direla eta, urez betetzen zaie tina-zuloa euria egiten duen bakoitzean. Filtrazio horiek konpondu nahian dabilta.
- Pats-zuloa, sagardo botilaz betea eta hondarrez estalia.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Inazia Oiarbide.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 23a

---



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Latse.

**Auzoa, udalerria:** Ereñotzu., Hernani.

**Dolarearen kokapena:** Latse ebxetik 100 bat metrora, Hernanitik Goizuetara doan errepidearen beste aldean, tolare izateko egindako eraikin batean.

**Jabea:** Joxeantonio Etxeberria.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoà.

**Iraunaldia:** Urtero egiten dute sagardoa, etxerako.

**Zenbait datu:** Tolareaz gain eraikinaren bazter batean sutegia ere badago, aita errementaria baitzen.

**Egungo erabilera:** Sagardogintza.

**Kontserbazio egoera:** Tolareko makineri guztia egoera onean dago, baina eraikinak teilatu berria eta paretak txukuntzea behar ditu.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Porlanezko askaren erdian zutik hartutako ardatza du, eta bertan muntatua burdinazko palanka bidez eskuz eraginda gora eta behera mugitzen den burua, karraka eta zurezko urkaz osatua.

**Dolarearen osagarriak:**

- Altzairu herdoilgaitzezko matxaka motorduna.
- Altzairu herdoilgaitzezko bi upel.
- Txorrotak, giltzak eta patsolak.
- Pats-zuloa.

**Argazkiak:** 25.01, 25.02, 25.03.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Hernani, sagardoa egin, upela.

**OHARRAK**


- Matxaka berria erabiltzen hasi baino lehen, porlanezko bi inertzia-bolante handi zituen bat erabiltzen zuten, eskuz. Inertzia bolanteak han inguruan ikus daitezke.
- Urumea ibaiaren beste aldean dituzte sagastiak, eta hara beraiek egindako bi lagunentzako txanela txiki batean joaten dira.
- Pats-zuloan sartzen dute patsa, gatz pixka bat bota eta zanpatuta, ondoren behiei emateko.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Joxeantonio Etxeberria.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 23a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Izenederbekoa.

**Auzoa, udalerria:** Ereñotzu., Hernani.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren ekialdeko eranskinean.

**Jabea:** Fermin Oiarzabal.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Badira 20 urte gutxienez sagardoa egiten ez dela.

**Zenbait datu:** Beste tolar zaharragoa zuten lehen, zurezkoa.

**Egungo erabilera:** Sutarako egurtegi moduan, botilak eta beste hainbat trasteren gordelekua.

**Kontserbazio egoera:** Hala moduzkoa.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian bertikalean porlanean hartutako ardatza dago, goiko muturrean estutzeko gailua duena, lau buloiz banatutako bi bolante horizontal. Bolanteen erdian dagoen tako baten bidez lotzen zaio ardatz hariztatuari eta haga bidez estutzen da. Beheko bolanteak, urka moduan, patsolak zanpatzeko altzairuzko bi perfil ditu loturik berarekin batera ardatzean gora eta behera egin dezaten.

**Dolarearen osagarriak:**

**Argazkiak:** 26.01, 26.02.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, Hernani.

**OHARRAK**

Matxakarik ikusi ez arren, egur artean nonbait omen dago.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Fermin Oiarzabal.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 23a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Muntogorri.

**Auzoa, udalerrria:** Amara., Donostia.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren iparraldeko eranskinean.

**Jabea:** Mendebaldeko bizitza: Antton Goikoetxea.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XIX-XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Duela 50 bat urte utzi zioten sagardoa egiteari tolare nagusian. Ondoren, behe solairuan dagoen beste txikiago batean egin zuten duela 40 bat urte arte.

**Zenbait datu:** Tolare nagusiak animalia trakzioz sagarra jotzeko sistema, malakatea, izan zuen, nahiz eta informatzaileak lanean ez ezagutu. Oraindik antzeman daitezke hainbat aztarna, harrizko horman egindako hainbat zulo esaterako. Ebberako egiteaz gain, Donostiara eramaten zuten sagardoa.

**Eguno erabilera:** Abandonatua, hondatua eta obretako zaborrez betea dago.

**Kontserbazio egoera:** Txarra.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Lehen solairuan dagoen tolare nagusiak ardatza eta burua falta du. Zurezko aska, kantalerak eta horiek estutzeko sistema besterik ez zaizkio geratzen, eta azpialdetik eusten duten soliba edo azpi sunbillak. Beheko tolarea, berriagoa, arrunta da, burdinazko ardazdun tolarea, hormigoizko askarekin.

**Dolarearen osagarriak:**

**Argazkiak:** 27.01, 27.02, 27.03, 27.04.

**GAKO-HITZAK**

Zurezko aska, malakatea, Donostia.

**OHARRAK**

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Antton Goikoetxea.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 26a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Isabelebe.

**Auzoa, udalerria:** Altza., Donostia.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren atzealdeko (iparraldeko) eranskinean.

**Jabea:** Pedro Mari Arregi.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Gutxienez 35 urte ez dutela sagardorik egiten.

**Zenbait datu:** Tolarea Sarrueta auzoko Balerdieneatik ekarri zuten.

**Egungo erabilera:** Traste eta bizikleten gordelekua, egurtegia.

**Kontserbazio egoera:** Hala-moduzkoa.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutik hartutako burdinazko ardatza du, eta ardatzaren zati hariztatuan muntatua burua. Honek palanka baten bidez eskuz eraginda mugitzen den karraka mekanismoa eta azpialdetik zurezko urka ditu.

**Dolarearen osagarriak:**

- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.

**Argazkiak:** 28.01, 28.02.

---

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Donostia.

**OHARRAK**

Etxea bota eta berria eraiki nahi dute errepidetik metro batzuk atzerago. Hasiera batean tolarea mantentzeko asmoa dute.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Pedro Mari Arregi.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 18a

---



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Antondegi.

**Auzoa, udalerrria:** Martutene (Altza), Donostia.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren aldamenean, ipar-mendebladera dagoen eraikinean, lehen solairuan toleara, upelategia behe solairuan.

**Jabea:** Aginaga-Altuna familia.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Badira behintzat 15 urte sagardorik ez dutela egiten.

**Zenbait datu:** Etxekoandarearen aitona, Inazio Maizek muntatu zuen toleara, Antondegi baserriko bi bizitzen arteko banaketa fisikoa egin eta partekatzen zuten tolar zaharra beste bizitzakoentzat geratu zenean. Tolare zahar hura han omen dago oraindik, baina eskuin bizitza bertan behera erorita dagoenez, hondakinak dira, ezinezko da barnera sartzea. Gertuko Parada eta Mirandaburu baserrikoek tolar honetan egin izan dute sagardoa.

**Egungo erabilera:** Ez du erabilerarik, lastoz beteta dago.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutik jarritako ardatz hariztatuan gora eta behera egiten duen mekanismoak osatzen du. Bolante baten bidez eskuz eragindako torloju amaigabea biratuz mugitzen da koroa-horzduna eta azpialdetik zampaketarako loturik duen zurezko urka. Soliba edo azpi sunbilek eusten duten zurezko aska du.

**Dolarearen osagarriak:**

- Bi inertzia-bolantedun matxaka.

**Argazkiak:** 29.01, 29.02, 29.03.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, zurezko aska, Donostia.

**OHARRAK**

Etxe honetako Antonio Maiz sagasti txertatzaile sonatua izan zen.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Aginaga-Altuna familia.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko apirilaren 19a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Elenategi-Berri.

**Auzoa, udalerrria:** Martutene (Altza)., Donostia.

**Dolarearen kokapena:** Etxearen atzeko (ipar-ekialdeko)eraikinaren behe solairuan.

**Jabea:** Manolo Mendiburu.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** 1990 urtearen inguruan egin zen sagardoa azkenekoz.

**Zenbait datu:** Askaren kantaleran jartzen duen moduan 1963an muntatu zuten Altzako Buenabistatik ekarritako tolarea.

**Egungo erabilera:** Trastelekua.

**Kontserbazio egoera:** Hala moduzkoa.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutitutako ardatzean bi abiaduratan mugitzen den buruak osatzen du. Polea eta uhalen bidez, motor baten indarra baliatzen da torloju amaigabea eta koroa-horzduna mugitu eta ardatz hariztatuan gora eta behera egiteko. Zurezko urkaren ordeztuzko perfilaz indartutako habea du.

**Dolarearen osagarriak:**

- Trakzio mekanikodun matxaka porlanezko egituratik behera sagarrak tolbara bideratzeko zurezko hodiarekin.
- Porlanezko egitura tolarearen albo batean, aska bera baino maila altuagoan. Bertan sagarrak pilatu eta matxakara bideratzen ziren.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Upela.

**Argazkiak:** 30.01, 30.02, 30.03.

**GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, matxaka, Donostia, upela.

**OHARRAK**


- Tolarea Elenategi-Berrin muntatu baino lehen Elenategi baserrian jotzen zuten sagarra, sagardotegia baitzen hura, auzoko Zapiain eta Marijuandegiren moduan.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Manolo Mendiburu.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko apirilaren 21a



## **31 ASTABIZKAR**

## **Sagardo dolareen inbentarioa**

### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Astabizkar.

**Auzoa, udalerrria:** Landarbaso., Donostia.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren barnean.

**Jabea:** Egilegor anaiak.

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Tolarea ez dute aspaldian erabili.

**Zenbait datu:**

**Egungo erabilera:** Trastelekua.

**Kontserbazio egoera:** Hala moduzkoa.

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Eskuz eragiten da.

**Dolarearen osagarriak:**

Inertzia- bolantedun matxaka bat du.

**Argazkiak:** 31.01.

### **GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Donostia.

### **OHARRAK**

- Trastez betea dutela eta, ez digute tolarea erakutsi nahi izan. Beraz, ezin izan ditugu tolarearen gaineko argazkiak atera.
- 1970eko hamarkadan txakolina egiten zen Astabizkarren.

### **GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Gotzon Egilegor, anaietako bat.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 23a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Landarbaso.

**Auzoa, udalerria:** Landarbaso., Donostia.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren aturreko aterpean.

**Jabea:** Jose Luis Arroyo.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mende hasierakoa.

**Iraunaldia:** Bertan bizi diren maizterrak ez dute sagardoa egiten zeneko garaiaren berri.

**Zenbait datu:**

**Egungo erabilera:** Trasteleku eta sagardo botilen biltegia.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian bertikalean porlanean hartutako ardatza, goiko muturrean estutzeko gailua duena: lau buloiz banatutako bi bolante horizontal. Bolanteen erdian dagoen tako baten bidez lotzen zaio ardatz hariztatuari eta hoga bidez estutzen da. Bi kateen bidez zintzilik darama patsolak zanpatzeko zurezko urka.

**Dolarearen osagarriak:**

**Argazkiak:** 32.01, 32.02, 32.03.

---

**GAKO-HITZAK**


Eskuzko trakzioa, Donostia.

**OHARRAK****GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Baserrian bizi diren maizterrak.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 23a



### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Lubeltzaberri.

**Auzoa, udalerrria:** Zamalbide., Errenteria.

**Dolarearen kokapena:** Hiru solairuko eraikin osoa da toleara, eta Lubeltzaberri baserritik 50 metro ipar-ekialdera dago, errepidearen beste aldean.

**Jabea:** Iartzabal familia.

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** 1901ean eraiki zuten tolarera-erakina, nahiz eta lehenago beste bat egon.

**Iraunaldia:** 1990 urtean utzi zioten sagardoa egiteari.

**Zenbait datu:** 1970ean toleara eraberritu eta orduko teknologiarekin modernizatu zuten. Egiluzetik hasi eta Zamalbideraino inguruko baserri guztietatik ekartzen zuten sagarra bertan jotzeko.

**Egungo erabilera:** Bere horretan dago, nahiz eta trastez betea egon.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

#### **Dolare-prentsa:**

Hiru solairutan antolatuta dago toleara. Goiko solairua sagarrak bildu eta gordetzeko da. Sabaizulo edo tranpatik matxakaren tolbara bideratzen dira, sagarra jo behar denean. Lehen solairuan dago motordun matxaka, eta puskatutako sagarra zuzenean isurtzeko, ondoan prentsa, zurezko aska errektangeluar handi baten erdian. Zutik jarritako burdinazko ardatzetik trakzio mekanikoz eraginda jaisten den plataforma handi batek zanpatzen du lehen matxakan jotako sagarra. Hainbat altzairuzko perfil eta oholez osatutako dago plataforma, eta gainean darama motorra eta eragiteko makineria guztia. Behe solairuan, azkenik, upelategia dago. Sabaian zurezko aska eusten duten soliba edo azpi sunbilak ikus daitezke. Baita soliben azpian, ardatzak lan egiterakoan gora egin ez dezan, altzairuzko perfil itzela eta torloju ere.

#### **Dolarearen osagarriak:**

- Motordun matxaka goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko zurezko hodiarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Sagar biltzerako eta patsa maneiatzeko tresneria.
- Lau barrika eta onilak.
- Garlia edo gurdi-barrika.
- Sagardo botilak garraiatzeko kaxak.
- Mantentze lanetarako tailerra, arotz mahaia eta tresneriarekin.

**Argazkiak:** 33.01, 33.02, 33.03, 33.04, 33.05.

### **GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, matxaka, zurezko aska, malakatea, Errenteria, upela.

### **OHARRAK**

- Lehenagoko tolaireak malakate bidez jotzen zen sagarra. Malakatea zegoen lekuan, eraikinaren hego-mendebaldera belar-siloa eraiki zuten.
- Sebastian Iartzabal Irazu, lehenik, eta, ondoren, haren seme Xalbador Iartzabal Berra izan ziren bertan jardun zuten sagardogileak.
- Lubeltzaberriko tolaireak osotasunean duen balorea kontuan hartuta, sakonago aztertu eta nolabaiteko babes-maila

behar luke.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Juani Iartzabal.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 24a





**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Gure Nahia, Txabola.

**Auzoa, udalerria:** Zamalbide., Erreterria.

**Dolarearen kokapena:** Etxe barnean, lehen solairuan toleara eta behe solairuan upelategia.

**Jabea:** Jose Migel Rezabal.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XXI. mendekoa.

**Iraunaldia:** Urtero egiten da sagardoa.

**Zenbait datu:** 2000. urtearen inguruan muntatu zuten zilindro hidraulikodun toleara. Lehen, Txirrita baserritik ekarritakoa zuten.

**Egungo erabilera:** Sagardogintza.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Poliesterrez estalitako askaren erdian zutitzen da zilindro hidrauliko handi baten lana baliatuz estutzen den prentsa. Altzairu herdoilezinezko sare edo kontraktolak ditu askak buelta guztian.

**Dolarearen osagarriak:**

- Motordun matxaka, goiko solairutik sagarra tolbara bideratzeko hodiarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Patsa maneiatzeko tresneria.
- Ponpa eta altzairu herdoilgaitzeko upela.

**Argazkiak:** 34.01, 34.02.

---

**GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, matxaka, Erreterria, sagardoa egin, upela.

**OHARRAK**

Tolarea 35 bat urte dituen Gure Nahia etxearen garajea dago. Etxe hori egin aurretik ondoan dagoen baserrian bizi ziren jabeak, eta maiz, etxe hori ere baserri zaharraren izenez ezagutzen da: Txabola, Loinazkaxeta edo Bordatxuri.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Jose Migel Rezabal.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 24a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Bordazar.

**Auzoa, udalerrria:** Zamalbide., Erreenteria.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren aurrean dagoen horma-harriz egindako eraikin exentua da toleara.

**Jabea:** Migel Zapiain.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Urtero egiten da sagardoa, etxerako.

**Zenbait datu:** Gaur egundo toleara Usurbildik ekarri zuten 1973an. Lehen beste bat zuten. Eraikinak 150 bat urte ditu, eta toleara izateko eraiki zuten.

**Egungo erabilera:** Sagardogintza. Erle kaxak ere baditu tolearan.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Bi solairutan antolatzen da toleara. Harrizko eskailera bidez eraikinaren albo batetik du sarbidea goiko solairuak. Albo batean du prentsa. Zurezko askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatza du, bakarra eta goiko muturra hariztatua duena. Zati horretan muntatua, eskuz eraginda ardatzean gora eta behera mugitzen den burua du, estutzeko mekanismoa eta zurezko urkaz osatua. Tamaina nabarmeneko zurezko aska soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Behe solairutik ikus daitezke azpi sunbila horiek. Baita ardatza azpitik eusten duen altzairuzko perfilaz indartutako egurra eta torlojua ere. Askaren habe nagusien argia handia denez altzairuzko perfilez dago erdian zurkaiztua. Aurrealdetik du sarrera behe solairuak eta bertan dago upelategia.

**Dolarearen osagarriak:**

- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Altzairu herdoilgaitzezko upela eta egurrezko bost barrika.
- Botilak.

**Argazkiak:** 35.01, 35.02, 35.03.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, zurezko aska, Erreenteria, sagardoa egin, upela.

**OHARRAK**

Sagasti handia dute, eta etxean sagardoa egiteaz gain, asko saldu egiten dute.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Iñaki Zapiain, sagardogilea eta jabearen anaia.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 18a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Larregain.

**Auzoa, udalerria:** Erenotzu., Hernani.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren barnean, sagardotegian, erakusketa moduan.

**Jabea:** Lasarte familia.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Hamar urte dira tolare honetan ez dutela sagardorik egiten.

**Zenbait datu:** Hernaniko El Caserio sagardotegitik ekarri zuten duela 40 bat urte. Urtetan egon dira, beraz, tolare honekin lanean. Baina Osasun Saileko ikuskaritzaren eskakizunak betetze aldera eta matxura bat tarteko, zaharra kendu eta hidraulikoa muntatu zuten, eta harekin dabilta lanean gaur egun. Tolare zaharra, orduan, sagardotegi barnean jarri zuten, erakusketa moduan.

**Egungo erabilera:** Erakusketak.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Sagardotegiko jangela nagusiko sakoneko hormaren kontra dago. Hormigoizko askaren erdian zutituta prentsaren ardatza dago, goiko erdia hariztatua duela. Zati horretan muntatua, burdinazko palanka bidez eskuz eraginda ardatzean gora eta behera mugitzen den burua du, estutzeko mekanismoa eta altzairuzko urkaz osatua. Urkaren azpian jotako sagarra zanpatzeko erabiltzen den egur-muntaia du: txorrota edo hodiak, giltza edo trumukuak eta patsolak. Askaren kantalerek sarea dute buelta guztian. Tolareko pieza guztiek bere izena daramate, eta atzeko hormak, baserri, belardi, sagasti eta gurdi-barrikaz konposatutako paisaia irudikatzen duen tamainako handiko pintura du marraztua.

**Dolarearen osagarriak:**

- Askaren ezkerrean lehen erabiltzen zuten matxaka.

**Argazkiak:** 36.01, 36.02.

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Hernani.

**OHARRAK**

- Erakusketa moduan edo ez bada, ez dute toleara erabiltzen.
- Sagardoa egiteko zilindro hidraulikozko tolare modernoa dute.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Isabel Lasarte.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 23a



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Gartziategi.

**Auzoa, udalerrria:** Martutene (Altza), Donostia.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren barnean, lehen solairuan.

**Jabea:** Bittor Lizeaga.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendearen erdialdekoa.

**Iraunaldia:** Duela 9 urte arte lanean izan zuten.

**Zenbait datu:** Tolare hidrauliko batekin batera, duela 9 urte arte egon da lanean. Neumatikoarekin hasi zirenean utzi zioten erabiltzeari. Baserrian obrak egin zituztenean, behe solairuan hormigoizko pilareak jartzearekin batera hormigoizko aska eraiki eta zurezko zaharra ordezkatu zuten.

**Eguno erabilera:** Bere horretan dago.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askan zutitutako burdinazko bi ardatz hariztatu ditu. Motore batek mugitzen du uhal polea eta engranajez osatutako makineria guztia, eta ondorioz ardatzean gora eta behera egiten du altzairuzko perfil eta oholez osatutako plataformak, bi abiaduratan: azkar edo motel, gerturatu edo zanpatu nahi denaren arabera, hurrenez hurren. Motore berak, gainera, matxaka mugitzen du. 12 tonako hormigoizko aska du. Behe solairuan dago sagardotegiko upelategia.

**Dolarearen osagarriak:**

- Matxaka goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko hodiarekin. Honela ipintzen du fundizioko armazoian: "A. Echeberria y C<sup>a</sup>. Lasarte, 1885"
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Patsa maneiatzeko tresneria.

**Argazkiak:** 37.01, 37.02, 37.03, 37.04.

**GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, matxaka, Donostia.

**OHARRAK**


- Baserria bi sagardotegien artean (Gartziategi eta Lizeaga) fisikoki banatu behar dutenez, matxaka aldez aldatu behar dute. Aska, aldiz, osorik mantenduko dute, nahiz eta banaketak erdiz erdi harrapatu.
- ETBko Sustraiak programarako sagardoa nola egiten zuten grabatu zen.
- Sagardoa egiteko tolare neumatiko modernoa dute.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Bittor Lizeaga.

**Datu bilketaren egilea:** A. Agirresarobe, J. Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 18a



## ERAIKINAREN DATUAK

**Izena eta aldaerak:** Barkaiztegi.

**Auzoa, udalerrria:** Amara., Donostia.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren barnean, lehen solairuan.

**Jabea:** Joxe Mari Irizar.

---

## DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Traunaldia:** Duela 10 urte arte martxan izan dute.

**Zenbait datu:**

**Egungo erabilera:** Bere horretan dago. Oholezko gainazal bat jarri dute askaren kantaleretako goiko ertzaren mailan, ardatzen artetik ibili eta espazioa ez alperrik galtzeko.

**Kontserbazio egoera:** Ona. Nahi denean martxan jarri daiteke.

---

## TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

**Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutitutako burdinazko bi ardatz hariztatu ditu. Motore batek mugitzen du uhal polea eta engranaje osatutako mekanismoa, eta ondorioz urkaren funtzioa duen egiturak ardatzean gora eta behera egiten du, bi abiaduratan: azkarra eta motela. Ardatz bakoitzaren engranajeak estaltzen dituen tapan ageri denez, Donostiako San Frantzisko kaleko tailerrean egin ziren, "Constructores Lasa S.L. San Sebastian" irakur daiteke-eta. Hormigoizko aska du, baina momentu honetan zurezko oholez estalia dago kantaleren goiko ertzaren parean. Ardatzak eta makineriaren zatia besterik ezin da ikusi, ondorioz. Behe solairuan upelategia zegoen garai batean.

**Dolarearen osagarriak:**

- Matxaka bere motorrarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.

**Argazkiak:** 38.01, 38.02, 38.03.

---

## GAKO-HITZAK

Trakzio mekanikoa, matxaka, Donostia.

## OHARRAK

- Tolareaz gain sagardogintza jarduerarekin loturiko hainbat tresna eta objektu daude, esaterako, erakusketetarako tolare eramangarria, zurezko hortzak dituen matxaka eta garlia edo gurdi-barrika.
- Sagardoa egiteko tolare pneumatiko modernoa dute.

## GALDETEGIA

**Informatzailea:** Joxe Mari Irizar.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 26a

